

ASTIGARRAGA

Urtekaria 2001
Hernani-Tolosa

17

Jose Angel Goñi ••• Sagardo Fundazioko kidea

«Sagardoaren inguruko ekintzak antolatu eta taldeekin lan egitea da helburua»



Sagardoaren fundazioa sortzeko lanean ari dira Astigarragan herriko 17 sagardogileak eta beste hainbat talde. Joxe Angel Goñirekin fundazioaren asmoaz solasean aritu gara.

• Nola eta zergatik sortu zen fundazioa eratzeko ideia?

Azkenaldian Astigarragan sagardoaren inguruan ekitaldi ugari sortzen dira eta hori dena koordinatzeko beharra ikusi genuen. Bai Udalak eta bai sagardogileak antolatuz arduratuko zen organismo baten beharra nabaritu genuen. Eta horrela herriko talde kulturalak, elkarte gastronomiko kulturalak, sagardogileak, kirol taldeak... elkartu eta fundazioa martxan jarri dugu.

• Zein da helburua?

Herriko talde batek jai bat antolatu behar duenean, gure ardura da aztertzea jai hori ondo datorrion herriari eta gainerako taldeei. Hala bada, guztien artean lan egingo dugu hori antolatzeko. Azken finean, sagardoaren inguruan herrian sortzen diren ekintzak ondo antolatzeko eta guztien artean laguntzea, talde guztien akordioekin lan egitea da helburua.

• Zer ekintza antolatzen dira herrian?

Orain momentuz sagardo berriaren eguna antolatzen da; batik bat sagardogileek antolatzen dute jai hori. Horren inguruan Txotx-berri festa sortu zen, eta iaz bigarrena egin genuen. Horrela, sagardogileen jaia zena herrira zabaltzeko, taberna-ri... Aurtengain, lehenengo aldiz sagar festa egin genuen irailean. Santa Ana egunean ere sagardo dastatzea egiten da.

• Nola joan zen lehen Sagar Eguna?

Asteburu oso bat iraun zuen festa. Aurretik inoiz egin ez zen ekitaldi batek eman zion hasiera jaiari, sagardo kaka. 50 lagun inguru elkartu ziren, etnologo batek zuzenduta, udaletxeko pleno aretoan. Larunbatean sagardoa egiteko prozesua azaldu zen antzinako tresnekin. Sagar barietate desberdinak ere izan ziren ikusgai eta bi teknikok azalpenak eman zituzten. Afari batekin eta sagardo dastatzearekin jaiaren azken egunera iritsi zen. Igandean sagardoa gai hartuz margo lehiaketa izan zen. Aurtengo irabazlea datorren urteko kartela izango da. Akatsak egon diren arren,

lehenengo urtea izateko nahiko ondo atera zen guztia.

• Hasiko den denboraldi berriaren aurrean zer asmo dituzue? Denboraldiaren hasiera prestatzen ari gara. Txotx-berri festa... Aurtengain beste zerbait ere egin nahi dugu, botilatik dastatzea egitea bultzatu nahi dugu. Sagardo berriaren inguruan lan egiten dugu beti, baina botilako sagardoa bultzada bat eman beharra ere ikusten dugu.

• Zer da sagardoa Astigarraga-ko hartarantz?

Ezaugarri nabarmenetarikoa. Astigarraga eza-guna bada, sagardoa-ak duen ospe horrengatik da batik bat. Gu sagardogile bezala, hori bultzatzeko beharra ikusten dugu. Eta

«Botilako sagardoa bultzada bat eman beharra ikusten dugu»

udaletxean, nire ustez, sentsibiltate hori ere badago, eta oraingoz behintzat elkarrekin ondo moldatzen gara. Eta gerora begira ere garrantzitsua izango litzateke sagardo munduan Astigarraga erreferentzia izatea.

• Orain arte izan al da horrelako beste elkarrekin herrian?

Ez. Sagardo berriaren eguna ospatzeko elkartzen ginen sagardogileak eta horren inguruan sortu da erakunde hau. Momentuz ez dago dena egin, horretan lanean ari gara, azterketa egin dugu nola lan egin eta hori guztia. Datorren urterako dena prest izatea espero dugu.

REZOLA
TOLosa - SEKARDOTEKIA

Sagardoa txotxek eta botilari
Sagardogileak menua

Industria Baserria - Santio Zeharra
Tel.: 943 55 66 37 - ASTIGARRAGA (Gipuzkoa)

"LABO" S.L.
BURDINAK

26 Poligono Industrialdea (28 Partzela)
Tel.: 943 55 58 00 - Faxa: 943 55 75 01
ASTIGARRAGA (Gipuzkoa)

VENDI
Janaridenda

ISABEL

Tomas Alba. 11
Tel.: 943 55 23 67
ASTIGARRAGA

PERFORACIONES Y DERIVADOS, S.L.

- Txapa zulatua eta zulatze mekanizatu
- Metal tolesgabetua
- Metalezko txamarroa
- Mailak eta burdinsareak
- Metalezko hesiak
- Forja artistikoa
- Ate metalikoak: **HENDERSON**

Industriaidea, 26 - Bidebitarte Ibilbidea, 124 - 13-14 lokalak
Tel.: 943 55 09 00 / 943 55 09 98 - Faxa: 943 55 09 00 - 20115 ASTIGARRAGA

Rafa
Garaikoetxea

Mediku Odontologoa
Kolegiatu zenbakia 415

Pelotari, 17 behe. - ☎ **943330089**
ASTIGARRAGA

LEUN
S.A.L.
BATERIAK

Tudor

- ▼ Bateriak eta trakzio ekipoen banaketa eta zaintza lana
- ▼ Gipuzkoa, Nafarroa eta Errioxako Banatzale Ekklusiboa

Donostia Ibilbidea, 42 - 8. partzela
15. lokala 28. Poligonoa
Tel.: 943 33 01 81 - Faxa: 943 33 01 87
ASTIGARRAGA